

Abarrak

UNAI BREA

Errotiko zalantzak

Roots. Alex Haley. Doubleday (1976).


ALEX HALEY-REN izenaz ez zarete, beharbada, zuetako asko akordatuko, baina Kunta Kinterenaz ia denok, seguru. Orain 34 urte argitaratu zen *Roots* (Erroak), literaturaren historiako nobelarik arrakastatsuenetakoa bat salmenten ikuspuntutik. Bertan, Alex Haleyk (1921-1992) XVIII. mendean atzemandako afrikar baten berri ematen du: Kunta Kinte. Kinte AEBetara eramán zuten esklabo, han alaba eduki zuen, alaba hark semea, seme hark... Zazpigarren belaunaldian, eleberraren egilea bera jaio zen.

Kintek beti aldarrikatu zuen bere jatorri afrikarra, eta errefusatu zuen estatubatuarrek emandako izena, Toby. Sorterriko kontuak kontatu zizkion alabari, alaba hark semeari, seme hark... arbaso afrikarraren istorioa Alex Haleyrengana iritsi arte. Azken orrialdeetan, Haleyk esplikatzén du nola ondu zuen eleberria, lehenengo senide zaharrenei galdetuz, gero Afrikara joanez, Kinteren jaioterria aurkituz, hango *griot*

–herriaren memoria gordetzen duen gizon– baten ahotik bere bir-bir-bir-birraititea izan zenaren berri jasoz...

Liburua *boom* handia izan zen. Baina luze gabe, Harold Courlander idazleak plagioagatik salatzen zuen Haley; zioenez, *Roots*-en 81 pasarte *The african* nobelatik kopiatuak ziren. Epaitegiak arrazoi eman zion salatzaileri, eta Haleyk liburuari esker irabazitako dolarren zatitxo bat, 650.000 hain justu, Courlanderren patrikara joan zen.

Kunta Kintek baino askoz sona gutxiago dauka, bestalde, Elizabeth Shown genealogistak *Roots*-i egindako kritikak: hamaika ikerketa egin eta gero adierazi zuenez, ezinezkoa da Toby izeneko esklabo hura Haleyren arbasoa izatea; datak ez datoz bat. Are, susmoa dago Haleyri Kunta Kinteren istorioa kontatu zion *griot* afrikarrak ez ote zuen jaso horixe bera esateko “presioaren” bat. Fikziozkoak dira Haleyren erroak? ■



duran...go!
goazen!

www.durango-euskaraz.net



DURANGO
1346k - Ayuntamiento